

BALIO PROPOSAMENA

Badaude desfibrilagailua soilik eskaintzen duten enpresak; baita hau erabiltzeko formakuntza ematen dutenak, baina DesfibriMAX-en, bi hauen eta desfibrilagailuaren mantenuaren bat-egitea eskaintzen dugu. Gure zerbitzua berritzailea izatearen harira, lehiakideengandik ezberdintzen gaituzten zenbait faktore azpimarra ditzakegu.

Guk eskaintzen dugun mantenuarekin, desfibrilagailua uneoro martxan egotea ziurtatzen dugu, eta horrela desfibrilagailua erabiltzeko momentuan arazoak ekiditzen ditu. Horretaz gain, aparatu honen funtzionamendu ona bermatzeak gizarterako onura ekarriko du produktuaren eskuragarritasuna ziurtatzen duelako. Gainera, gure teknikari eta langile guztiek D.E.A. titulu ofiziala dute eta desfibriladoreen mantenuaren inguruko hainbat goi mailako ikastaro jasotakoak dira, ematen dugun zerbitzua kalitatezko izateko.

Hau guztia kontuan hartuz, gure balioa kualitatiboa izango da nagusiki.